

KOSTU EGITURA:

Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?

Gure enpresan mota bat baino gehiagoko kostuak edukiko ditugu. Alde batetik, kostu finkoak, hau da, produktuaren salmenten arabera aldatzen ez direnak, honako hauek izango dira: fabrikaren alokairua, webgunearen mantenua, garraio enpresaren zerbitzua eta alde aurretik eskatutako maileguaren kuota. Zehatzago azalduz, hilabetero 2.500€ ordaindu beharko ditugu fabrikaren alokairuagatik, webgunea mantentzeagatik hilero 600€ gastatuko ditugu, garraio enpresaren zerbitzuagatik tarifa lau bat kontratatuko dugu, zehazki 30 botila garraiatzeagatik 70€ ordaindu beharko ditugunak eta bi urtez eta hilabete batez hilabetero 509,66€ gastatuko ditugu maileguko kuota ordaintzen. Bestalde, kostu aldakorrei dagokienez, hau da, salmenten arabera aldatzen diren kostuei dagokienez, hasiera batean honako hauek izango dira, nahiz eta denborarekin aldatu daitezken eta berriak agertu daitezken: lehengaietan gastatuko duguna, botilako 5€-koa izango dena, langileei soldatak ordaintzen langileko 1200€ gastatuko ditugu eta gutxi gora behera 20 izango direnak hasiera batean eta argia, ura eta elektrizitatearen kostua lehenengo hilabetean 1200€koa izango dena baina makinaren eta beste hainbat gailuren erabileraren arabera aldatuko dena.

KOSTU FINKOAK:

Fabrikaren alokairua	2500€/hilabeteko
Webgunearen mantenua	600€/hilabeteko
Garraio enpresaren zerbitzua (Correos)	70€ko tarifa laua/hilabeteko
Maileguaren kuota	509,66€ 2 urte eta 1 hilabete

KOSTU ALDAKORRAK:

Botila bakoitzaren kostua lehengaietan	5€
Langileen soldatak	1.200€x20 = 24.000€
Argia, ura eta elektrizitatearen kostua	1.200€

Kostu hauetaz gain, enpresa sortzerakoan hainbat kosu edukiko ditugu eta horregatik mailegu bat eskatuko dugu guk aurreztuta dugun diruaz gain.